



**ORDENANTZA 10. ZK**

**AGURAIINGO UDALA ARABAKO LURRALDEA**

**UDAL JABETZA PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATUAGATIK  
EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU  
BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

**I. XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua**

Udalak tasak ezarri eta eskatuko ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatu eta aprobetxamendu bereziarengatik, ordenantza honetan ezarritako arauari jarraituz eta Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak ezarritakoarekin bat etorritik. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

**2. artikulua**

Ordenantza hau udalerrira osoan aplikatuko da.

**II. ZERGA GAIA**

**3. artikulua**

Udal jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia da zerga gaia.

**III. SUBJEKTU PASIBOA**

**4. artikulua**

1.- Subjektu pasiboak edo zergak ordaintzen dituzten subjektuak dira pertsona fisiko eta juridikoak zein Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikulua aitazten dituen entitateak, baldin eta herriko jabari publikoek gozaten badute edo horiek erabili edo aprobetxatzen badituzte beren onurarako.

2.- Ibilgailu edo gurdientzako espaloietako sarrerak direla-eta erabilera pribatuarengatik edo aprobetxamendu bereziarengatik ordaindu beharreko tasak direnean, edo sarrerak eraikitze, mantentze, aldatze edo kentze xedatutako tasak direnean, ibilgailuen



sarrerak dagozkien funtsen eta lokalen jabeak izango dira zergadunen ordezkioak. Hala dagokionean, onuradun bakoitzari ordainarazi ahalko dizkiote kuotak.

3.- Administrazio publikoek, erkidego autonomoek eta toki erakundeek ez dute tasarik ordaindu beharko, baldin eta jabari publikoaren erabilera pribatu edo aprobetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikabide-zerbitzu publikoetarako aprobetxamenduak eta herritarren segurtasunaren edo defentsa nazionalaren zuzeneko interesen aprobetxamenduak badira.

#### **5. artikulua**

Tasak dagozkien lizentzien titularrek ordaindu beharko dituzte edo, bestela, aprobetxamenduz onura ateratzen dutenek.

### **IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK**

#### **6. artikulua**

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak ematea aplikatu beharreko xedapen orokorren menpe egongo da beti.

### **V. ZERGA OINARRIA**

#### **7. artikulua**

Jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia gertatzen den unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinean adierazitakoaren arabera.

### **VI. KUOTA**

#### **8. artikulua**

1.- Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskineko tarifen arabera.

2.- Erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia dela-eta udal jabari publikoa apurtu edo hondatzen bada, dagokion tasaz gain, egin beharreko berreraikitze edo konponketa gastuen kostua osorik itzuli beharko du onuradunak, baita horri dagokion zenbatekoa alde aurretik gordailutu ere. Kalteak konponezinak balira, udalak kalte ordaina jasoko luke, apurtutako ondasunek edo hondatutako kalteek egiten dutenaren parekoa. Udalak ezin izango ditu barkatu, ez zati batean ez osorik, paragrafo honetan aipatutako kalte-ordain eta itzulketak.



## VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

### 9. artikulua

1.- Zerga gaiaren izaeraren arabera, herriko jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia dela kausa ordaindu beharreko tasa une hauetan sortuko da: edo erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia hasten denean, eta kasu horretan horri dagokion zenbatekoaren zati bat edo guztirakoa aldeztatik gordailutzeko eska daiteke; edo jarduera edo espedientea abiarazten duen eskabidea aurkezten denean, eta orduan jarduera ez da burutuko edo espedientea ez da izapidetuko dagokiona ordaindu arte.

2.- Tasaren izaera materiala dela-eta tasa aldiari-aldiari sortu behar bada, hori urte bakoitzaren urtarilaren lehen egina da eta zergaldiak urte naturala hartuko du, erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia hasi edo amaitzen den kasuetan izan ezik, egoera horretan zergaldia horren arabera egokituko baita, kuotari dagokion hainbanaketa ezarrita, eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3.- Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla-eta jabari publikoaren aprobetxamendurik ezin bada egin, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

## VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

### 10. artikulua

Kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa udal administrazioak egingo du, eta likidatutako kuota dirutan ordaindu behar da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinean dauden arauen arabera.

## IX. TASEN KUDEAKETA

### 11. artikulua



Ordenantza honek araututako zergen likidazioari, bilketari eta ikuskaritzari dagokion guztian eta egoera bakoitzari dagokion zigorrak zehazteari dagokion guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak xedatutakoa aplikatuko da.

### **X. AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau eta beraren eranskina behin betiko onartu ziren eranskinean agertzen den egunean eta 2009ko urtarrilaren 1ean sartu da indarrean eta hala jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.

**UDAL JABETZA PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATUAGATIK EDO  
APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK  
ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

**Eranskina**



**A)EPIGRAFEA. BIDE PUBLIKOAREN LURPEKO, LURRAZALEKO EDO AIREKO OKUPAZIOA EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA**

**TARIFA:**

Bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo aireko okupazioa aplikatzen duten eta herritar gehienei edo horien zati handi bati eragiten dieten hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek honako tasa ordainduko dute: udalerrri honetan urteko fakturazioaren ondorioz lortzen duten sarrera gordinen % 1,5.

**EZARPEN ARAUAK:**

1. Enpresek ekitaldi bakoitzaren lehenengo lau hilabeteetan udalerrian egindako horniketengatik lortutako diru-sarreraren aitorpena aurkeztuko dute, eta aurreko urtean lortutako sarrera gordinak ere zehaztuko dituzte. Aitorpen horrekin batera enpresaren kontabilitatearen laburpena eta udalak egoera bakoitzean eskatzen dituen agiriak aurkeztuko dira.
2. Tasa honen ondorioetarako, bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo aireko okupazioa gauzatzen duten eta herritar gehienei edo horien zati handi bati eragiten dieten hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen artean sartuko dira zerbitzu horiek banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak.
3. Tasa hori aipatutako enpresei aplikatuko zaie, bai hornitzeko erabiltzen duten sarearen titular badira, bai, sare horien titular izan ez arren, beraiek erabiltzeko edo haietara sartzeko edo interkonektatzeko eskubidea badute.
4. Telefonía mugikorreko zerbitzuak ez dira erregimen honetan sartuko.
5. Fakturaziotik datozen sarrera gordintzat hartuko dira, enpresa bakoitzari egotzi ahal izanik, udalerrri bakoitzean emandako zerbitzuen ordain gisa enpresak lortu dituen sarrerak. Ez dira diru-sarrera gordin izango eskainitako zerbitzuak kargatzen dituzten zeharkako zergak, ezta tasa kuantifikatzeko erregimen berezi hau aplikatzen zaion erakundearen beraren diru-sarrera ez diren eta hirugarrenek kobratutako partidak edo kopuruak ere. Era berean, ez dira fakturaziotik eratorritako sarrera garbien artean barne hartuko Argindarra Ekoizteko Instalazioen Ekonomia Ministerioaren Administrazio Erregistroko 1. edo 2. atalean izena emanda dauden instalazioetan erabiliko diren hornidura zerbitzuen bidez jasotako kantitateak, erregimen berezi horretan tributatu dezakeen energia sortzeko lehengai gisa.
6. Hornitzean, bereak ez diren sareak erabiltzen dituzten enpresek diru-sarrera gordinetik kenduko dituzte beste enpresa batzuen sareetara sartu edo interkonekzioa egiteagatik horiei ordaindutakoa.



Sare horien titular diren enpresetarako, berriz, kontzeptu horregatik jasotakoak diru-sarrera gordin izango dira.

7. Erregimen berezi hau aplikatuta egiten duen zenbatekoa ezin izango zaie hornidura-zerbitzuen erabiltzaileei jasanarazi.

**B) EPIGRAFEA. ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN LAGINKETAK EDO LUBAKIAK IREKITZEAGATIK ETA BIDE PUBLIKOETAKO ZOLADURA ETA ESPALOIAK IRAULTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA**

TARIFA: 0,67 euro/m<sup>2</sup>.

FIDANTZA: lanen % 4,29.



EZARPEN ARAUAK:

1. Baimen eskaeran aprobetxamenduaren zergatia, lanen iraupena eta baimena emateko eta ordaintzetik salbuesteko beharrezko diren argibide guztiak
2. Aldez aurretik jarritakoa kitatzeko, aintzat hartuko dira interesdunak eskaeran adierazitakoak. Behin-behineko diru-gordailu horrek ez dio inongo eskubiderik aitortuko jartzaileari, eta ez du lanak egiteko baimenik ematen. Lanok baimena jasotakoan baino ezin izango dira egin.
3. Kitapena behin betiko bihurtuko da aprobetxamenduari buruzko ebazpena ematen denean. Ebazpen horrek aprobetxamendua ukatzen badu, interesdunak ordaindutakoak itzultzeko eska dezake.
4. Baimena eman, hogeita hamar egun igaro eta lanak hasi ez badira, baimen hori iraungitzat joko da. Lanak hasitakoan ezingo dira eten.
5. Atzerapenak ekar ditzakeen kalteak –gas isuriak, harien fusioa...– direla-eta lanak berehala egin behar badira, udal baimena lortu aurretik ekin ahal izango zaio aprobetxamenduari. Baimen hori, ordea, lanak hasi eta hurrengo hogeita lau orduetan eskatu beharko da, bai eta presaren zergatia arrazoitu ere.
6. Ur lotuneetarako irekitzeak ez badira, zoladura edo iraulitakoa konpontzearen ardura aprobetxamenduaren onuradunena izango da. Horako horiek konponduko dituela ziurtatzeko, interesdunak, eskaera izapidetu aurretik, bermea jarri beharko du. Jarritako bermea egin beharreko lanak egiten dutena bestekoa ez bada, aldea ordaindu beharko du interesdunak udal teknikariak jakinarazten dion kontuan.
7. Betelanak, zangak estaltzea eta zoladura ordezkatzeta udalaren zeregin izango dira. Lanok udalak egin ezin baditu, emakidadunak egingo ditu. Kasu hori baimen agirian edo beteko den presa agirian jasoko da.
8. Baimenaren emakidadunak zoladura ordezkatzeta, udal zerbitzuak, dagozkion ikuskatzeak egin ondoren, lanak behar teknikoek aginduta bezala ez direla egin uste badu, udalak egindakoak eraitsi eta berriro egin ahal izango ditu. Lanok, hots, betelaneak, zangak estaltzeak eta zoladura ordezkatzeta, eragindako gastuak baimenaren emakidadunak ordainduko ditu.
9. Zangak estaltzeko eta zoladura ordezkatzeko lanak egiteko epea igaro eta egin ez badira, eskubide berriak kitatuko dira tarifarekin bat etorriz. Horiez gain, alkateak beste isun batzuk ere jarri ahal izango ditu.



**C) EPIGRAFEA. MERKANTZIAK, ERAIKUNTZAKO MATERIALAK, OBRA HONDAKINAK, HESIAK, EUSTOINAK, ASTOTXOAK, ALDAMIOAK ETA ANTZEKO INSTALAZIOAK ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN UTZI ETA OKUPATZEAGATIKO TASA**

TARIFAK metro koadroko eta eguneko:

- 50 metro koadro edo gutxiagoko merkantziak:	0,114 €
- 50 metro koadro edo gutxiagoko eraikuntzako materialak:	0,114 €
- 50 metro koadro baino gehiagoko merkantziak eta eraikuntzako materialak:	0,176 €
- Hesiak:	0,114 €



---

- Obra-hondakinak:	0,114 €
- Astotxoak eta aldamiok:	0,114 €
- Antzeko instalazioak:	0,114 €

**EZARPEN ARAUAK:**

1. Aprobetxamendu berriengatik edo epe jakineko aprobetxamenduengatik ordaindu beharreko tasa udal gordailuetan edo udalak adierazten duen lekuan ordainduko da, beti baimena edo dena delakoa jaso aurretik. Baimena eskuratu bada eta lanak egiteko eperik ez badago, sei hilabeterik behin ordainduko dira udal gordailuan, tasa hori ordaindu behar dutenen erroldan sartuta gero. Tasa horiek seihileko lehen hileko 16a eta bigarren hileko 15a bitartean ordainduko dira.

2. Aprobetxamenduaren iraupena zehatz-mehatz zehaztu ez bada, behin baimena lortuz gero, baimen hori luzatu egingo da, harik eta baja adierazpena aurkeztu arte.

3. Tasapeko elementuak kendutakoan, interesdunek baja adierazpena aurkeztuko dute. Adierazpen horrek dagokion tarifan adierazitako hurrengo seihilekoko lehen egunetik aurrera izango du eragina. Bajarik aurkezten ez bada, interesdunek tasa ordaintzen jarraitu beharko dute, baja ez aurkeztearen zergatia zernahi dela ere.

**D) EPIGRAFEA. ERABILERA PUBLIKOKO LURZORUAN SALTOKIAK, BARRAKAK, SALMENTARAKO ETXOLAK, IKUSKIZUNAK EDO ATRAKZIOAK EDO KALEZ KALEKO INDUSTRIAK JARTZEAGATIK ETA ZINEMA FILMAZIOAK EGITEAGATIK ORDAINDU**

**BEHARREKO TASA**

**\* TARIFAK:**

1. Barrakak eta feriako aparailuak: Horretarako egin den pleguan lursailen enkanterako zehaztu den gutxieneko tasa.



2. Kalez kaleko industriak eta industria ibiltariak

- Zorroztaileak, eguneko: 0,85 €eguneko
- Zapata-garbitzaileak, eguneko: 0,85 €eguneko
- Argazkilariak, eguneko: 0,85 €eguneko
- Aurrekoetan sartu ez diren beste batzuk: 8,90 €eguneko

	<u>Urteko tarifa</u>	<u>Hiruhileko tarifa</u>	<u>Eguneko tarifa</u>
3. Salmenta ibiltaria			
- 1 – 3 metro lineal	239,75 €	69,00 €	8,90 €
- 3 – 6 metro lineal	305,29 €	87,65 €	11,40 €

4. Azoka egunak (astearteak) ez diren egunetako salmenta ibiltaria: 8,90 euro/eguna.

5. Aguraingo Kuadrillaren inguruan landatutako produktu ekologikoak saltzeagatik ordaindu beharreko tasak % 50eko hobaria izango du, horren ziurtagiriak aurkeztu ondoren.

**EZARPEN ARAUAK:**

**A) Azoka:**

1. Astero egingo da, astearteetan, jaieguna ez bada. Astearte hori jaieguna bada aurreko astelehenean egingo da. Herriko jaietan, astearteetan, San Juan plazan ez da azokarik egongo.

2. Azoka San Juan Plazan izango da, 07:00etatik 14:00etara.

3. Udalak plano batean adieraziko du saltoki bakoitzaren kokapena. Horretarako, saltokiaren eskatzaile bakoitzari emango zaion zenbakia jarriko da.

4. Saltzaile ibiltariak saltokia jarrita eta ibilgailua plazatik kenduta izan beharko dute 09:00ak baino lehen; ibilgailua udalerriko aparkalekuetan aparkatuko dute. Jarduera bukatzen denean (14:00ak) saltokia jarri duten lekua garbirik utzi behar dute; bestela, isuna izan dezakete eta salmentarako baimena baliogabe utzi.

5. Lanpostuek sei metro izango dituzte gehienez; azoka hori ez da udalerriko beste inon egingo, ez eta astearte ez den beste egun batean ere.

**B) Feriako eta erakustazoketako aparailuak:**

1. Udalak erabakiko du horiek non jarri.

2. Feriako eta erakustazoketako aparailuek Honako sailkapena izango dute tamainaren arabera: aparailu handiak, ertainak eta txikiak



**C) Kudeaketa:**

1. Tasaren ordainketa Udaleko Diruzaintzan edo udalak ezartzen duen lekuan egingo da, zuzenean dirua sartuta. Ordainketa hori udal lizentzia ematen denean eta jabari publikoa okupatu aurretik egingo da.

2. Kokapenak, instalazioak, saltokiak eta abar lizitazio publikoan atera daitezke azokak egin baino lehen. Lizitazio-tasa, oinarri izango den gutxienezko tasa gisa, tarifetan zehaztuko da.

3. Enkantea egin aurretik enkantean parte hartzeko libre geratzen diren lursailen plano bat egingo da; plano horretan, lizitatuko diren lursailek zenbaki bat jarriko zaie eta horien azalera adierazita egongo da. Era berean, erabilera hauek izan ditzaketen lursailak zehaztuko dira: talka-autoak, zirkoak, antzerkiak, animalia-erakusketak, jatetxeak, izozki-dendak, bisuteriak, ...

4. Emakidadunen batek enkantez esleitu zaion azalera baino gehiago erabiliko balu, erabilitako metro koadro bakoitzeko ordaindu beharko du. Horrekin batera, eskaintzaren % 100 ordaindu beharko du, tarifetan ezarritako zenbatekoaz gain.

5. Pertsona edo entitateak hemen araututako aprobetxamenduen emakidan interesatuta badaude, eta hauek ez badira lizitazioan atera, aurretik dagokion baimena eskatu beharko dute, ondoren, lehen aipatu den ordainketa egin beharko dute, eta azkenik, aprobetxamenduaren azalera eta bertan instalatu beharko diren elementuak zein diren adierazi beharko ditu. Horrekin guztiarekin dokumentazio hau ere aurkeztu beharko dute:

- Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren alta.
- Elikagaiak maneiatzeko txartela.
- Autonomoen aseguruia.
- Saltzen dituzten produktu horiei berariaz aplikatu dakizkiekeen arauak ezartzen dituzten eskakizunak.
- Gizarte Segurantzaren ordaintzen duela egiaztatzen duen ziurtagiria. Interesdunak eskakizun hauetakoren bat betetzen ez badu, zuzenean galduko du saltokia jartzeko eskubidea.

6. Udaleko zerbitzu teknikoek interesatuek egindako adierazpenak egiaztatu eta ikertuko dituzte, eta baimen-eskaerekin ezer ezberdinik aurkitzen ez badute, baimen horiek eman egingo dira. Ezberdintasunen bat aurkituz gero, ordea, interesdunei jakinarazi egingo zaizkie, eta hala behar izanez gero, dagokion likidazio osagarriak bidaliko dira. Baimena emateko, ezberdintasun horiek konpondu beharko dira, eta hala behar izanez gero, dagokion ordainketa osagarriak egin.



7. Baimenak pertsona jakin batzuei emango zaizkienez, ezin izango dira hirugarren batzuei laga edo azpierrean eman. Arau hau ez betetzeak baimena baliorik gabe uztea dakar; hori interesatuei ordaindu beharko zaizkion zenbatekoak kontuan hartu gabe.

8. Merkatuko postuetarako baimenak ematean, irizpide hauek izango dira kontuan:  
antzinatasuna  
• inguruko produktu ekologikoak eta artisautzakoak

9. Epigrafe honetan jasotakoa bete ezean, isunak jarriko dira, 30,05 euro eta 601,01 euro bitartekoak. Gainera, salmentarako baimena galdu egingo dute urtebetez.

**E) EPIGRAFEA. JABETZA PUBLIKOKO LURRAK PINTADEKIN, PANKARTEKIN, ERROTULUEKIN, PROPAGANDAREKIN ETA IRAGARKIEKIN OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA**

\* TARIFAK:

- Hauteskundeetako propaganda, horretarako zehaztutako lekuetan: doan.
- Hauteskunde kanpainetatik kanpo jarriz gero: 0,64 euro/m<sup>2</sup>.



**F) EPIGRAFEA. IRABAZTEKO XEDEZ, JABETZA PUBLIKOKO LURRAK MAHAIEKIN ETA AULKIEKIN OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA**

\* TARIFAK:

- Kafe mahai edo antzeko bakoitzarengatik: 9,10 €
- Kafe aulki edo antzeko bakoitzarengatik: 2,85 €



**G) EPIGRAFEA. JABETZA PUBLIKOKO LURRAK ERAKUSLEIHOEKIN, ERAKUSKETEKIN, KARTELEKIN, HORMA-IRUDIEKIN ETA IRAGARKIEKIN OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA**

**TARIFAK:**

- |  |        |
|--|--------|
| - Erakusleihoak, metro lineal edo zatikiko eta urteko:                   | 2,05 € |
| - Aldi baterako erakusketa, iragarki, horma-irudi edo kartelak, eguneko: | 0,65 € |
| - Erakusketa, iragarki, horma-irudi edo kartel finakoak, urteko:         | 6,15 € |

**EZARPEN ARAUAK:**

1. Erakusleihoak, erakusketak, horma-irudiak, kartelak eta iragarkiak eraikitako plano bertikaletik edo jabetza pribatuko mugatik haratago doazenean, ordaindu beharko da jabetza publikoa erabiltzeagatik tasa. Tasa Erakusleiho, erakusketa, horma-irudi, kartel edo iragarki guztiarengatik ordainduko da, nahiz eta haien zati batek baino ez okupatu jabetza publikoa.



2. Honela egingo dira neurketak:

- Aipatutakoak finkoak badira, dena hartuko da kontuan.
- Aipatutakoak mugitu edo handitu ahal badira, azalera handiena hartuko da kontuan.
- Erakusleihoak direla eta, haren azalera guztia hartuko da kontuan, armazoiak hartzen duena barne.

3. Tasa baimena lortutakoan ordainduko da, eta hortik aurrera urtero beste tasekin batera. Interesdunek aprobetxamenduan izan diren aldaketak jakinaraztera beharturik daude.

**H) EPIGRAFEA. ESPALOIETAN ZEHAR IBILGAILUEN SARRERAK JARTZEAGATIK EDO BIDE PUBLIKOAN APARKATZEKO EDO EDOZEIN MERKATARITZA GAIREKIN LOTUTAKO ZAMA LANAK EGITEKO LEKUA HARTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA**

\* TARIFAK:

- Eraikin edo kotxetegi partikularretan ibilgailuentzako sarrera izatea, edo aparkaleku orokor bateko aparkaleku indibidualetan, edo jabeen komunitate baten zati diren zona edo kale partikularretan, komunitateko kide ez direnen ibilgailuei aparkatzeko debekua jarrita: 51,55 €
- Ibilgailuak gordetzen diren garaje do lokaletan sarrera izatea, non konponketak edo koipeztatze, garbitze, petroliotze edo antzeko lanak egin daitezkeen, edo erregaiez hornitzea: 51,55 €
- Sarrera izatea ibilgailuak gordetzen diren garaje, lokal edo aparkalekuetan,



non aparkatzeko denboragatik prezio jakin bat kobratzen den (ordukako aparkalekua): 51,55 €

- Ibilgailuak saldu, erakutsi eta konpontzeko lokaletan sarrera izatea, edo koipeztatze, garbitze, petroliotze lanak egiten diren lokaletan ~~51,55 €~~

• Merkataritza edo industria lokaletan sarrera izatea merkataritza gaiekin lotutako zama lanak egiteko:

- Erabilera publikoko bide eta lurretan espazioak gordetzea, zama lanak egiteko: 51,55 €

#### EZARPEN ARAUAK:

1. Tasaren ordainketa, aprobetxamendu berriak direnean, udal gordailuetan zuzenean ordainduko da, dagokion baimena hartu baino lehen. Ordainketa hori behin-behineko gordailutzat hartuko da, eta baimena ematean behin betiko bihurtuko da. Jadanik baimenduta dauden eta baimen hori luzatuta duten aprobetxamenduak badira, tasa honen erroldan edo matrikulan sartuta egonez gero, tasa hori urte naturalan ordainduko da Zerga Bilketarako bulegoetan.

2. Pertsona edo erakundeek epigrafe honetan araututako aprobetxamenduen emakidan interesatuta badaude, aurretik dagokion baimena eskatu beharko dute, ondoren, lehen aipatu den ordainketa egin beharko dute, eta azkenik, aprobetxamendua zein den eta udalerrian zein kokapen izango duen zehatz-mehatz adieraziko duen plano bat aurkeztu beharko dute.

3. Udaleko zerbitzu teknikoek interesatuek egindako adierazpenak egiaztatu eta ikertuko dituzte, eta baimen eskaerekin ezer ezberdinik aurkitzen ez badute, baimen horiek eman egingo dira. Ezberdintasunen bat aurkituz gero, ordea, interesdunei jakinarazi egingo zaizkie, eta hala behar izanez gero, dagokion likidazio osagarriak bidaliko dira. Baimena emateko, ezberdintasun horiek konpondu beharko dira, eta hala behar izanez gero, dagokion ordainketa osagarriak egin.

4. Baimenak ukatuz gero, interesdunek ordaindutako dirua itzultzeko eskatu ahal izango dute.

5. Behin okupazioa baimenduta, luzatuta dagoela ulertuko da, hariketa interesdunek baja adierazpena aurkeztu arte. Baja adierazpena aurkezteak aurkezten den egunaren ondorengo seihileko naturalaren lehen egunetik aurrera izango du indarra. Bajarik aurkezten ez bada, interesdunek tasa ordaintzen jarraitu beharko dute.



6. Bide publikoen erreserbak instalatzea, zaintzea eta horietan seinaleak jartzea eskatzaileen kontura izango da. Udal jabetza publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza 2008ko azaroaren 12an onartu zen behin betiko; eranskinean jasotako epigrafeak ere horren zati dira.

O.E  
ALKATEA

IDAZKARIA